



Euskaraldia, Donostialdea ESlan* euskararen erabilera sustatzeko aukera

*Donostialdea ESlan: Donostia Ospitaleak eta inguruko (Donostia, Pasaia, Errenteria, Oiartzun, Hernani, Astigarraga, Urnieta, Zumaia, Getaria, Zestoa, Zarautz, Orío, Aia, Lasarte eta Usurbil) osasun zentroek osatzen duten Osakidetzako erakunde sanitario integratua.

Azken urteetan pazientean oinarritutako arreta sanitarioaren ikuspegia ari da gailentzen nazioarteko arlo sanitarioan, eta Osakidetzaren ildo estrategikoetan ere argi adierazten da pazienteek osatzen dutela osasungintzaren ardatz nagusia.

Hizkuntza izanik pertsonen artean komunikatzeko tresna behinena, arestian aipatzen den ereduan garrantzi itzela du hizkuntzaren erabilera Donostialdea ESlan langileen eguneroko lanean, eta ildo beretik, gure Euskara Planaren printzipioen artean jasota dago arretaren kalitatea hobetzeko ezinbesteko erreminta dela euskara.

2006tik, lehenengo Euskara Plana martxan jarri zenetik, hainbat pauso eman dira; besteak beste, dagokion euskara maila egiaztatua duten langileen portzentajea hirukoiztu egin da, identifikazio sistemaren bidez erabiltzaileari erraztu egin zaio profesional elebidunak identifikatzea, eta “arretarako lehenetsitako hizkuntza” deritzon neurriaren bidez, pazienteak lehenetsitako hizkuntza jasotzen ari gara.

Aurrerapenak aurrerapen, bide luzea dugu oraindik euskarak erakundearen dagokion lekua hartu dezan. Gurean ere, euskararen normalkuntzak beste hainbat esparrutan topatu duen hesia aurkitu du, ezagutzatik erabilerarako jauzia, alegia; ez baikara inguruan dugun jendartearengandik aparte dagoen erakunde.

Dena den, ajeak partekatzeko ez ezik, konponbideak bilatzeko aukera eskaintzen digu erabiltzaile eta profesionalen elkargune diren osasun zentroak eta ospitalea. Inolako zalantzarik gabe, erakundearen barruan plan eta programen bidez egiten ari garen ahaleginari, biztanleen erabilera gehitzen ez badiogu normalkuntza prozesua hanka-motz geratuko da, ez baitio eguneroko jardunak ematen dion bultzada emango.

Oso argi daukagu, hortaz, elkarrekin egin beharreko bidea dela hizkuntza normalkuntzarena. Erabileraren gurpilari bi aldeetatik eraginez gero, mugimendua azkarragoa izango da eta arinago egingo du aurrera. Hain zuzen ere, EUSKARALDIak, ahalegin hori denok aldi berean egiteko aukera ematen digu, eta sendotasunez egiten badugu, etorkizunerako gurpila etengabe biraka aritzeko bidea emango digu.

Beraz, izan gaitezen *ahobizi* edo *belarriprest* Donostialdea ESlan ere!

Lierni Lekuona. Donostialdea ESlko Pertsonaleko zuzendariordea 2018-10-26